

## Xedapen Orokorrak

### EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

3629

EBAZPENA, 2006ko ekainaren 9koa, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen errektoreordearena, Irakasleen Gestiorako Arautegian egindako aldaketak argitaratzeko dena.

Unibertsitateak, bere autonomiari esker, estatutuak dauzka, erakundearen antolaketaren ezaugarri berezi diren arlo eta organoak erregulatzen dituzten oinarriko arauak. Baina estatutuez gain, unibertsitateak, bere ahalmenaz baliatuta, beste arau eta prozedura batzuk onartzen ditu gestioaren alorretako lanak tramitatu ahal izateko.

Baina jardunbide aplikagarria arautzeko ahalmena ez dago mugatuta unibertsitatearen esparrura. Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak, 6.1 artikuluan, unibertsitateen antolamendu juridiko partikularren aipamena egiten du: «unibertsitateak lege honen bidez arautuko dira, eta estatuk eta autonomia erkidegoek euren ahalmenez baliatuta erabaki ditzaketan arauen bidez».

Emandako ahalmenez baliatuta, 2004ko martxoaren 12an argitaratu zen Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legea. Lege horretako 10. artikuluko 2. atalak dioenez, unibertsitateko gobernu-organoei ematen dituzten aplikazio orokorreko xedapenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko ditu unibertsitateak, eta ez dira jarriko indarrean beren testu osoak argitaratu arte.

Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak Irakasleen Gestiorako Arautegia aldatzea erabaki zuen 2006ko apirilaren 4ko bileran.

Aipaturiko guztia kontuan hartuta, eta otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, 10.2 artikuluan dioena betetzeko (2004-03-12ko EHAA), honakoa

EBATZI DUT:

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Irakasleen Gestiorako Arautegian egindako aldaketak, eranskinean jasotakoak, hain zuzen ere.

Leioa, 2006ko ekainaren 9a.

Irakasleen errektoreordea,  
JUAN JOSÉ UNZILLA GALÁN.

## Disposiciones Generales

### UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

3629

RESOLUCIÓN, de 9 de junio de 2006, del Vicerrector de Profesorado, de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que procede a la publicación de la modificación del reglamento de gestión de profesorado.

En el ejercicio de su autonomía, la Universidad se dota de sus Estatutos, normas básicas que regulan por sí mismas aquellas materias y órganos que estructuran los rasgos esenciales de la organización universitaria. Pero junto a los Estatutos, la Universidad, en el ejercicio de sus competencias establece normas y procedimientos para tramitar las tareas de las diferentes áreas de gestión.

Pero no sólo la Universidad tiene capacidad de regular cual es el régimen aplicable. Su ordenamiento jurídico particular está fijado en el artículo 6.1 de la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades: «Las Universidades se regirán por la presente Ley y por las normas que dicten el Estado y las Comunidades Autónomas, en el ejercicio de sus respectivas competencias.»

En ejercicio de esta competencia, con fecha 12 de marzo de 2004 se publicó en el BOPV la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco. Esta Ley establece en el apartado 2 del artículo 10 la obligación de la Universidad de dar publicidad en el Boletín Oficial del País Vasco a las disposiciones de general aplicación que dicten los órganos de Gobierno de la misma, las cuales no entrarán en vigor hasta la íntegra publicación de sus textos.

La Comisión Permanente del Consejo de Gobierno de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, acordó aprobar la modificación del Reglamento de Gestión de Profesorado en sesión de 4 de abril de 2006.

Por todo lo anterior, y en cumplimiento del artículo 10.2 de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco (BOPV 12-03-2004),

RESUELVO:

Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco la modificación del Reglamento de Gestión de Profesorado en los términos recogidos en el suplemento adjunto.

En Leioa, a 9 de junio de 2006.

El Vicerrector de Profesorado,  
JUAN JOSÉ UNZILLA GALÁN.

## ERANSKINA

ERABAKIA, EHUKO GOBERNU KONTSEILUAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEEN GESTIORAKO ARAUTEGIA ALDATZEA ONARTZEKO DENA. ARAUTEGIA EHUKO GOBERNU KONTSEILUAK ONARTU ZUEN ABENDUAREN 21EAN.

EHUKO Gobernu Kontseiluak, 2004ko abenduaren 21ean egindako bileran, Irakasleen Gestiorako Arautegia onartu zuen (urtarrilaren 19ko EHAA). Ondoren, 2006ko martxoaren 10ean, Gobernu Kontseiluak aldatu egin zituen arautegi horretako zenbait artikulutan (apirilaren 19ko EHAA).

Arautegi horren arabera, irakasle plazetara sartzeko, oro har, doktore, lizentziatu, arkitekto edo ingeniari titulua edo baliokidea izan behar da.

Hala ere, arautegian jasota dago zenbait irakasle plazetarako eta zenbait jakintza-arlotarako, nahikoa dela unibertsitateko diplomatu, arkitekto tekniko edo ingeniari tekniko izatea.

Hala ere, irakaslearen irakastasuna titulazioaren arabera da, eta horrela, bada, unibertsitateko diplomatuak, arkitekto teknikoak edo ingeniari teknikoak lehenengo zikloan baino ezin du irakatsi, hau da, lehenengo hiru mailatan; lizentziatuak, berriz, bigarren zikloan ere irakats dezake, eta, doktoreak, hirugarren zikloan ere bai.

Hori guztia kontuan hartuta, badirudi zentzuzkoa dela irakasle kategoria bakoitzerako eskatutako titulazioa jakintza-arloari ez ezik, kontratuari berari ere lotzea, eta, beraz, bigarren zikloan irakatsi behar duen irakasleari lizentziatu, arkitekto edo ingeniari titulazioa edo baliokidea eskatzea.

Irakasleen Gestiorako Arautegian, 9.4 atalean, zehaztuta dago unibertsitate sartzeko lehiaketak ebatziko dituzten epaimahaiak era honetara osatuta egongo direla: idazkaria, Unibertsitateko Irakasleen Batzordeak proposatua (hitza izango du, baina ez botorik), eta kasuan kasuko plazari dagokion jakintza-arloko hiru irakasle doktore edo, halakorik egon ezean, kideko jakintza-arlokoak; kideok saileko kontseiluak izendatuko ditu eta kontseiluak zehaztuko du epaimahaikide edo presidente izango diren.

Edozelan ere, komenigarria da epaimahai horien osiera aldatzea, batetik, eraginkortasun handiagoa lortzeko, eta, bestetik, sindikatuek ere parte hartzeko aukera izan dezaten.

## ANEXO

ACUERDO, DE LA COMISIÓN PERMANENTE DEL CONSEJO DE GOBIERNO, DE LA UPV/EHU, POR EL QUE SE APRUEBA LA MODIFICACIÓN DEL REGLAMENTO DE GESTIÓN DE PROFESORADO DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA APROBADO POR EL CONSEJO DE GOBIERNO DE LA UPV/EHU EN SESIÓN DE 21 DE DICIEMBRE.

El Consejo de Gobierno de la UPV/EHU, en sesión de 21 de diciembre de 2004, aprobó el Reglamento de Gestión de Profesorado (BOPV de 19 de enero). Posteriormente, con fecha 10 de marzo de 2006, el Consejo de Gobierno de la Universidad modificó el citado Reglamento en parte de su articulado (BOPV de 19 de abril).

Dicha normativa establece como requisito de acceso de carácter general para las distintas figuras de profesorado el Título de Doctor o el de Licenciado, Arquitecto, Ingeniero o equivalente.

Sin embargo, dicha normativa también regula determinadas figuras docentes en las que la titulación exigida como requisito de acceso es, para algunas áreas de conocimiento, el título de Diplomado Universitario, Arquitecto Técnico o Ingeniero Técnico.

Ahora bien, la capacidad docente del profesorado viene determinada por su titulación, de forma que el profesorado con la titulación de diplomado universitario, arquitecto técnico o ingeniero técnico puede impartir docencia en el primer ciclo, es decir, en los tres primeros cursos de la enseñanza universitaria, el profesorado licenciado puede impartir docencia también de 2.º ciclo, y si es Doctor de 3.º ciclo.

Por ello parece razonable vincular la titulación exigida como requisito de acceso para cada categoría docente no sólo al Área de Conocimiento sino al contenido concreto del contrato que se convoca, de forma que en todo caso al profesorado que imparta docencia en segundo ciclo se le exija la titulación de Licenciado, Arquitecto, Ingeniero o equivalente.

El Reglamento de Gestión de Profesorado recoge, en su apartado 9.4, que las Comisiones Evaluadoras estarán integradas por tres profesoras o profesores doctores integrados en el área al que pertenece la plaza o, en su defecto, a un área de conocimiento afín y por un miembro de la Comisión de Profesorado Universitario, que actuará como Secretaria o Secretario, con voz pero sin voto y que los miembros de estas Comisiones de Evaluación serán designados por el Consejo de Departamento correspondiente, indicando la calidad de Presidenta o Presidente o vocal.

Resulta sin embargo conveniente modificar la composición de dichas Comisiones de Evaluación para hacer de ellas, por una parte, un instrumento más ágil y, por otra, posibilitar la participación de los representantes sindicales en las mismas.

Hori guztia kontuan hartuta, Irakasleen errektoreordeak honako proposamena egin dio Gobernu Kontseiluari.

#### ERABAKI-PROPOSAMENA:

**Lehenengoa.**— Irakasleen Gestiorako Arautegiko 2.1.3 eta 2.2.3 atalak aldatzea, irakasle lankideren irudia arautzeko direnak, hain zuzen ere. Aldaketaren ondorioz zilegi izango da irakasle lankideak kontratatzea unibertsitateko diplomatu, arkitekto tekniko edo ingeniari tekniko titulua izanda, baldin eta jakintza-arloa ondorengo bat bada, eta lehenengo zikloan irakasteko bada: 0110 Arkitektura Eraikuntzak; 0187 Gorputz Adierazpidearen Didaktika; 0189 Musika Adierazpidearen Didaktika; 0193 Plastika Adierazpidearen Didaktika; 0255 Erizaintza; 0300 Arkitekturako Adierazpen Grafikoa; 0305 Ingeniaritzako Adierazpen Grafikoa; 0413 Fisioterapia; 0505 Kartografia Geodesia eta Fotogrametria Ingeniaritza; 0510 Eraikuntzako Ingeniaritza; 0515 Fabrikazio Prozesuen Ingeniaritza; 0520 Sistemen Ingeniaritza eta Automatika; 0535 Ingeniaritza Elektrikoa; 0545 Ingeniaritza Mekanikoa; 0570 Hizkuntza eta Sistema Informatikoak; 0605 Ingurumen Jarraituen Mekanika eta Egituren Teoria; 0647 Optika; 0785 Teknologia Elektronikoa; eta 0813 Gizarte Langintza eta Gizarte Zerbitzuak.

**Bigarrena.**— Irakasleen Gestiorako Arautegiko 2.1.5 atala aldatzea, bitarteko irakasle kontratatuen irudia arautzeko dena, hain zuzen ere. Aldaketaren ondorioz zilegi izango da salbuespen moduan bitarteko irakasleak kontratatzea unibertsitateko diplomatu, arkitekto tekniko edo ingeniari tekniko titulua edo baliokidea izanda, baldin eta jakintza-arloa ondorengo bat bada, eta lehenengo zikloan irakasteko bada: 0065 Materialen Zientzia eta Metalurgia Ingeniaritza; 0110 Arkitektura Eraikuntzak; 0187 Gorputz Adierazpidearen Didaktika; 0189 Musika Adierazpidearen Didaktika; 0193 Plastika Adierazpidearen Didaktika; 0255 Erizaintza; 0300 Arkitekturako Adierazpen Grafikoa; 0305 Ingeniaritzako Adierazpen Grafikoa; 0345 Ingles Filologia; 0385 Fisika Aplikatua; 0413 Fisioterapia; 0505 Kartografia Geodesia eta Fotogrametria Ingeniaritza; 0510 Eraikuntzako Ingeniaritza; 0515 Fabrikazio Prozesuen Ingeniaritza; 0520 Sistemen Ingeniaritza eta Automatika; 0535 Ingeniaritza Elektrikoa; 0545 Ingeniaritza Mekanikoa; 0555 Ingeniaritza Kimikoa; 0565 Ehun eta Paper Ingeniaritza; 0570 Hizkuntza eta Sistema Informatikoak; 0590 Makina eta Motor Terminoak; 0605 Ingurumen Jarraituen Mekanika eta Egituren Teoria; 0647 Optika; 0720 Ingeniaritzako Proiektuak; 0785 Teknologia Elektronikoa; eta 0813 Gizarte Langintza eta Gizarte Zerbitzuak.

**Hirugarrena.**— Epaimahaiak, oro har, honako kideak izango ditu: kasuan kasuko plazari dagokion jakintza-arloko hiru irakasle doktore edo, halakorik egon ezean, kideko jakintza-arlokoak; sindikatuetakoa orde-

Por cuanto antecede, este Vicerrector de Profesorado eleva al Consejo de Gobierno la siguiente,

#### PROPUESTA DE ACUERDO:

**Primero.**— Modificar los apartados 2.1.3 y 2.2.3 del Reglamento de Gestión de Profesorado por el que se regula la figura docente de Profesor Colaborador estableciendo que en las siguientes áreas de conocimiento podrán ser contratados Profesoras y Profesores Colaboradores exigiendo con carácter general la titulación de Diplomado Universitario, Arquitecto Técnico o Ingeniero Técnico, cuando se trate de impartir docencia en el primer ciclo: 0110 Construcciones Arquitectónicas; 0187 Didáctica de la Expresión Corporal; 0189 Didáctica de la Expresión Musical; 0193 Didáctica de la Expresión Plástica; 0255 Enfermería; 0300 Expresión Gráfica Arquitectónica; 0305 Expresión Gráfica en la Ingeniería; 0413 Fisioterapia; 0505 Ingeniería Cartográfica, Geodésica y Fotogrametría; 0510 Ingeniería de la Construcción; 0515 Ingeniería de los Procesos de Fabricación; 0520 Ingeniería de Sistemas y Automática; 0535 Ingeniería Eléctrica; 0545 Ingeniería Mecánica; 0570 Lenguajes y Sistemas Informáticos; 0605 Mecánica de Medios Continuos y Teoría de Estructuras; 0647 Óptica; 0785 Tecnología Electrónica y 0813 Trabajo y Servicios Sociales.

**Segundo.**— Modificar el apartado 2.2.5 del Reglamento de Gestión de Profesorado por el que se regula la figura docente de Profesor Contratado Interino estableciendo que como excepción en las siguientes áreas de conocimiento se podrá contratar profesorado interino exigiendo con carácter general la titulación de Diplomado, Ingeniero Técnico, Arquitecto Técnico o equivalente cuando se trate de impartir docencia en el primer ciclo: 0065 Ciencia de los Materiales e Ingeniería Metalúrgica; 0110 Construcciones Arquitectónicas; 0187 Didáctica de la Expresión Corporal; 0189 Didáctica de la Expresión Musical; 0193 Didáctica de la Expresión Plástica; 0255 Enfermería; 0300 Expresión Gráfica Arquitectónica; 0305 Expresión Gráfica en la Ingeniería; 0345 Filología Inglesa; 0385 Física Aplicada; 0413 Fisioterapia; 0505 Ingeniería Cartográfica, Geodésica y Fotogrametría; 0510 Ingeniería de la Construcción; 0515 Ingeniería de los Procesos de Fabricación; 0520 Ingeniería de Sistemas y Automática; 0535 Ingeniería Eléctrica; 0545 Ingeniería Mecánica; 0555 Ingeniería Química; 0565 Ingeniería Textil y Papelera; 0570 Lenguajes y Sistemas Informáticos; 0590 Máquinas y Motores Térmicos; 0605 Mecánica de Medios Continuos y Teoría de Estructuras; 0647 Óptica; 0720 Proyectos de Ingeniería; 0785 Tecnología Electrónica y 0813 Trabajo y Servicios Sociales.

**Tercero.**— Las Comisiones de Evaluación estarán integradas, con carácter general, por tres profesoras o profesores doctores integrados en el área al que pertenece la plaza o, en su defecto, a un área de conocimiento afín

kari bat, lan-kontratudun irakasle eta ikertzaileen Enpresa Batzordeak proposatua (hitza izango du, baina ez botorik).

Epaimahaikideak kasuan kasuko saileko kontseiluak izendatuko ditu, eta zehaztu egin beharko du epaimahaiburua, idazkari edo kide diren.

Horiek gorabehera, Irakasleen errektoreordeak Unibertsitateko Irakasleen Batzordeko kide bat izendatu ahal izango du, batzordeko idazkari izango dena (hitza izango du, baina ez botorik).

#### ERREKURTSOAK:

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian hilabete biko epean, erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (ikus Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 107. artikulua eta hurrengoak).

## Bestelako Xedapenak

### JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

#### 3630

AGINDUA, 2006ko maiatzaren 16koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuarena, Auzitegi Gorenaren 2006ko martxoaren 7ko epaia betearazten duena; epai horrek 1999ko martxoaren 1eko eta 11ko aginduen 1. artikulua deuseztatzen du.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 1999ko apirilaren 27, 29 eta 30ean argitaratu ziren 1999ko martxoaren 1eko eta 11ko aginduak, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Merkataritza eta Enpresa Titulatuen Elkargo Ofizialetako Estatutuak, hurrenez hurren, onartu zituztenak.

Ekonomialarien Espainiako Elkargoen Kontseilu Orokorrak inpugnatu egin zituen agindu horiek, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak 793/2003 epaia eman zuen 2002ko irailaren 16an. Epai horrek aurkeztutako errekurtsoa orokorrean baietsi egin zuen eta 1999ko martxoaren 1eko eta 11ko aginduetako 1. artikulua deuseztatu zuen.

y una representante o representante sindical propuesto por el Comité de Empresa del PDI laboral que actuará con voz pero sin voto.

Los miembros de estas Comisiones de Evaluación serán designados por el Consejo de Departamento correspondiente, indicando la calidad de Presidenta o Presidente, Secretaria o Secretario o Vocal.

No obstante lo anterior el Vicerrector de Profesorado podrá nombrar a un miembro de la Comisión de Profesorado Universitario para actuar, con voz pero sin voto, como Secretaria o Secretario de la Comisión.

#### RECURSOS:

La presente agota la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse, en virtud de lo dispuesto en los artículos 107 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

#### 3630

ORDEN de 16 de mayo de 2006, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se ejecuta la sentencia del Tribunal Supremo de 7 de marzo de 2006 que anula el artículo 1 de las Órdenes de 1 y 11 de marzo de 1999.

Con fechas 27, 29 y 30 de abril de 1999 se publicaron en el Boletín Oficial del País Vasco las Órdenes de 1 y 11 de marzo de 1999 por las que se aprobaban los respectivos Estatutos de los Colegios Oficiales de Titulados Mercantiles y Empresariales de Bizkaia, Gipuzkoa y Álava.

Impugnadas las citadas Órdenes por el Consejo General de Colegios de Economistas de España, la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dictó la sentencia n.º 793/2003 con fecha 16 de septiembre de 2002 por la que se estimaba en lo principal el recurso interpuesto y anulaba el artículo 1 de las citadas Órdenes de 1 y 11 de marzo de 1999.